

## BESTE BETEBEHARRAK

Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako merkataritza-establezimenduen titularrek bete behar dituzten beste betebegar orokor batzuk azaltzen dira.

### SALTZEKO BETEBEHARRA

Jendearentzat irekita dagoen establezimendu bat izateak bere eskaintza bezeroei saltzera behartzen du. Ezin da mugarik ezarri erosi beharreko unitate-kopuruan, produktuaren eskuragarritasunetik harago, eta horien esleipena eskaera-ordenaren arabera egin behar da.

### MERKATARITZA - ORDUTEGIA

Ordutegia eta irekitzeko egunak jendaurrean jarri behar dira, establezimenduaren kanpoaldetik ikusteko moduan, baita itxita dagoenean ere.

### PREZIOAK

Produktuek jendearentzako salmenta-prezioa erakutsi behar dute, bai erakuslehoan, bai lokalaren barruan. Zenbait produktu, hala nola bitxigintzakoak, larrugintzakoak eta 600 eurotik gorako prezioa dutenak, salbuetsita daude betebegar horretatik. Zerbitzuetan, prezioak ikusgaia izan behar du jendearentzat, kartel, liburuxka eta abarren bidez.

Prezioak ordaindu beharreko zenbateko osoa adierazi behar du, zergak eta bestelako gastuak barne, halakorik balego. Ontziratutako produktuetan, neurri-unitateko prezioa adierazi behar da (kiloa, litroa, metroa, etab.). Produktu ontziratutako neurgarrietan, produktuaren aleko prezioaz gain, neurri-unitateko prezioa ere adierazi behar da (kiloa, litroa, metroa, etab.).

Kontsumitzaileak erosi edo kontratatu nahi duen produktuaren edo zerbitzuaren prezioari gehitutako ordainketa ororen berri eman beharko da alde zuzenetik, eta haren berriazko baimena izan beharko da.

## **AURREKONTUAK**

Zerbitzuak ematen dituzten enpresak aldez aurretik aurrekontu bat ematera behartuta daude, materialak, egin beharreko lanak eta horien kostua zehaztuz. Onartu ondoren, loteslea da eta kopia bat emango zaio interesdunari. Hala ere, kontsumitzaileak berariaz uko egin diezaioke. Aldez aurretik iragarri bada bakarrik kobratu ahal izango da.

## **ORDAINKETA**

Banku-txartel bidezko ordainketa onartu beharko da sistema horri atxikitzen zaizkiola iragartzen duten establezimenduetan. Merkealdietan, sustapen berezietan eta abarretan ere onartu beharko da ordainketa-metodo hori, betiere egoera arruntetan onartzen bada. Ordainketa-modalitate horretarako muga kuantitatiboak ezarri ahal izango dira, betiere behar bezala iragarrita badaude.

## **ETIKETATZE**

Produktuen etiketatzea nahitaezkoa da, eta gutxienez produktuaren izena, ezaugarriak, arduraduna eta, hala badagokio, erabilera-jarraibideak eta izan daitezkeen arriskuak agertu behar dira.

[Etiketatzeari buruzko arau ugari daude](#), produktuaren arabera: elikagaiak, kosmetikoak, jostailuak, altzariak eta ehunak, oinetakoak eta osagarriak, besteak beste.